

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### SEGURTASUN SAILA

## 362

*EBAZPENA, 2025eko urtarrilaren 14koa, Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez iragartzen baita noiz argitaratuko den Enplegu Publikoaren Atarian 2025eko urtarrilaren 14ko Ebazpena, zeinaren bidez xedatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Administrazioi zerbitzu laguntzaileetako langile lan-kontratudunen enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetan hautatutako pertsonen kontratuak formalizatu aurreko dokumentazioa aurkezteko faseari hasiera ematea.*

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Administrazioi zerbitzu laguntzaileen 2022rako Enplegu Publikoaren Eskaintza onartzen duen Erabakiarekin (Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako zuzendariaren maiatzaren 24ko 53/2022 Ebazpenaren bidez argitaratua) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Administrazioi zerbitzu laguntzaileetako enplegua finkatzeko ezohiko prozesuetarako oinarri orokorren 16. apartatuarekin (oinarri horiek Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren 2022ko abenduaren 5eko Aginduaren bidez onartu ziren), bat etorritik, hau

#### EBAZTEN DUT:

Iragartzea 2025eko urtarrilaren 23an argitaratuko dela Enplegu Publikoaren Atarian eta <https://www.euskadi.eus/enplegu-publicoa/helbide> elektronikoan, Giza Baliabideen zuzendariaren 2025eko urtarrilaren 14ko Ebazpena, zeinaren bidez xedatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Administrazioi zerbitzu laguntzaileetako langile lan-kontratudunen enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetan hautatutako pertsonen kontratuak formalizatu aurreko dokumentazioa aurkezteko fasea irekitzea.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urtarrilaren 14a.

(EE: Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuak eskuordetuta, 2024ko urtarrilaren 23ko Agindua, 2024-02-02ko EHAA, zenbait eskumen gauzatzea Segurtasun Saileko Giza Baliabideen zuzendariari eskuordetzen diona).

Giza Baliabideen zuzendaria,  
MIRIAM ANITUA ARANZABAL.